

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2014ko ABENDUAREN 4an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko abenduaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
*Karlos Irazu Muñoa*  
Jon Tejeria Otermin  
Aritz Usandizaga Larrañaga


Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**  
- **2014ko azaroaren 6an egindako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Aiztondo zerbitzuen Mankomunitatearen 2014 urteko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, hala bada.**
4. **Harrera Taldeak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
5. **Erniozaleak Kultur Elkarateak 2014 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
6. **Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzaren eta Larraulgo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespena, Larraulgo Udal erroldaren lagapenari buruzkoa, hala bada.**
7. **2014ko azaroaren 12ko aginduaren berri ematea, hezkuntza, hizkuntza politika eta kulturako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia iragartzen da (Udalaguntza 2014).**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

8. Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestaturiko “Larraulgo Eskolan Hobekuntza lanak, komunen moldaketa ” izeneko memoria eta aurrekontua onestea, hala bada.
9. Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestaturiko “Larraulgo Eskolan Hobekuntza lanak, aterpea ” izeneko memoria eta aurrekontua onestea, hala bada.
10. 7.000 biztanletik beherako udalerriei zuzendutako diru-laguntzaren berri ematea, antolaketa orokorreko udal plangintzako hirigintza tresnak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 legera egokitzeko gastuak finantzatzeko, eta dagokion gastuaren onespena, hala bada.
11. Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 1 zk.ko espedientearen onespena.
12. Fakturak eta ordainketak.
13. Beste batzuk.
14. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

### LEHENENGO PUNTUA

**ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2014 urteko azaroaren 6ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### BIGARREN PUNTUA

**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:


18/2014 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 20koa, Villabonako Udalak egindako eskaera onartzea, ebazten duena, hau da Larraulgo udalarenak diren zenbait materialak uztea, antolatutako auzolanean erabiltzeko.

19/2014 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 18koa, 2014ko 1. Kreditu Aldaketa espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

**AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN 2014 URTEKO 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA ONESTEA ETA BURUTZEA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2014ko azaroaren 6an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2014 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 11.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 11.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2014 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 11.000,00 eurotako gastua onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **HARRERA TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Harrera taldeak eginiko diru-laguntza eskaera preso eta errefuxiatu ohiei hasierako harrera emateko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harrera taldeak eginiko diru-laguntza eskaera ukatu. Eskaturiko diru-laguntza hauek emateko, Udal aurrekontuetan ez dagoelako aurreikusirik inolako partidarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Harrera taldeari ematea.


### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK 2014 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA.**

Ikusirik Erniozaleak kultur Elkarteak aurkezturiko, 2014an egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA: Erniozaleak Kultur Elkarateak aurkezturiko, 2014 urtean egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena onestea. Ondorengoa izanik:

-Sarrerak: 12.254,15€(Aurreko urteko gerakina 3.634,15€izanik)

-Gastuak: 7.880,70€

-Soberan gelditzen dena hurrengo ibilaldietarako: 4.373,45€

### SEIGARREN PUNTUA

#### **GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, LARRAULGO UDAL ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKOA, HALA BADA**

Ikusirik Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzak eginiko eskaera, non Udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzak hitzarmenaren zirriborroa igorri dute, Larraulgo Udalak bere onespena emateko. Agintaritzak MUGI sistema kudeatzen du, MUGI/Lurraldebus txartela bateratze tarifarioaren ardatza delarik. Erabiltzaileek txartela hauek eskuratu ahal izateko zenbait kasuetan derrigorrezkoa da Gipuzkoan erroldatuta egotea, horretarako dagokion errolda ziurtagiria eskatzen dutelarik. Beraz, egin nahi dena da hitzarmen honekin, Larraulgo herritarren eskaerak egiaztatzea, udal erroldaren bidez, honek errolda ziurtagiria eskatzea ordezkatzeko duelarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren artean, udal erroldaren lagapenari buruzko lankidetzak hitzarmenaren onespena.


BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, hitzarmen hau sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari ematea.

### ZAZPIGARREN PUNTUA

**2014ko AZAROAREN 12KO AGINDUAREN BERRI EMATEA, HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, HEZKUNTZA-ADMINISTRATIOAREN MENDEKO IKASTETXEAK DAUDEN UDAL JABETZAKO ERAIKINETAN OBRAK EGITEKO GASTUAK FINANTZATZEKO DEIALDIA IRAGARTZEN DA (UDALAGUNTZA 2014)**

*Une honetan, arratsaldeko 19.55 orduetan, Karlos Irazu zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate jaunak bertaratuei jakitera ematen die 2014ko azaroaren 12ko agindua argitaratu dela, hezkuntza politika eta kulturako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia iragartzen da (Udalaguntza 2014).

Bertan bi proiektu aurkezteko asmoa dagoela jakitera ematen die Alkate-Lehendakariak; bata “Larraulgo eskolan hobekuntza lanak, komunen moldaketa”; eta bestea, “Larraulgo eskolan hobekuntza lanak, aterpea”.

Udalbatza honetara bertaratuek, guziaren berri hartzen dutelarik.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **EBA ERKIZIA BRION UDAL ARKITEKTOAK PRESTATURIKO “LARRAULGO ESKOLAN HOBOKUNTZA LANAK, KOMUNEN MOLDAKETA” IZENENKO MEMORIA ETA AURREKONTUA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik 2014ko azaroaren 12ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziarioa arautzen den (Udalaguntza-2014).

Ikusirik Larraulgo Eskolan beharrezkoa dela hainbat lan burutzea, zerbitzu egoki bat eman ahal izateko. Horretarako Eba Erkizia Brion Udal Aholkulari Teknikoak prestatu du “Larraulgo Eskolan hobekuntza lanak, komunen moldaketa” izeneko memoria eta aurrekontu bat.


Ikusirik Larraulgo Udalak asmoa duela Larraulgo Eskolan egin behar dituen lanak finantzatu ahal izateko diru-laguntza eskaera egitea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak onarturiko 2014ko azaroaren 12ko aginduaren babesean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestatuturiko “Larraulgo Eskolan Hobekuntza lanak, komunen moldaketa ” izeneko memoria eta aurrekontua onestea.

BIGARRENA.- Larraulgo Eskolan egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2014ko azaroaren 12ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren babesean. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziarioa arautzen den (Udalaguntza-2014).



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **EBA ERKIZIA BRION UDAL ARKITEKTOAK PRESTATURIKO “LARRAULGO ESKOLAN HOBEKUNTZA LANAK, ATERPEA” IZENEKO MEMORIA ETA AURREKONTUA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik 2014ko azaroaren 12ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziazioa arautzen den (Udalaguntza-2014).

Ikusirik Larraulgo Eskolan beharrezkoa dela hainbat lan burutzea, zerbitzu egoki bat eman ahal izateko. Horretarako Eba Erkizia Brion Udal Aholkulari Teknikoak prestatu du “Larraulgo Eskolan hobekuntza lanak, aterpea” izeneko memoria eta aurrekontu bat.

Ikusirik Larraulgo Udalak asmoa duela Larraulgo Eskolan egin behar dituen lanak finantzatu ahal izateko diru-laguntza eskaera egitea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak onarturiko 2014ko azaroaren 12ko aginduaren babesean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA.- Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestatuturiko “Larraulgo Eskolan Hobekuntza lanak, aterpea ” izeneko memoria eta aurrekontua onestea.

BIGARRENA.- Larraulgo Eskolan egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2014ko azaroaren 12ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren babesean. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziazioa arautzen den (Udalaguntza-2014).

### **HAMARGARREN PUNTUA**

**7.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN BERRI EMATEA, ANTOLAKETA OROKORREKO UDAL PLANGINTZAKO HIRIGINTZA TRESNAK LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2006KO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGERA EGOKITZEKO GASTUAK FINANTZATZEKO, ETA DAGOKION GASTUAREN ONESPENA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 7.000 biztanletik beherako udalerri zuzendutako diru-laguntzak argitaratu direla, antolaketa orokorreko udal plangintzako hirigintza tresnak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 legera egokitzeko gastuak finantzatzeko.

Ikusirik, Abantze dokumenturekin bukatzeko, “ Documento preliminar para informe preliminar de impacto ambiental del organo medioambiental del documento del Plan General de ordenación urbana de Larraul” egitea falta dela. Horretarako Soroa Arquitectos S.L.P. lana egin dutela eta dagokion faktura aurkeztu dela, 9.168,88 eurotako.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 7.000 biztanletik beherako udalerri zuzendutako diru-laguntzak eskaera egitea, antolaketa orokorreko udal plangintzako hirigintza tresnak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 legera egokitzeko gastuak finantzatzeko. “ Documento preliminar para informe preliminar de impacto ambiental del organo medioambiental del documento del Plan General de ordenación urbana de Larraul” dokumentuaren gastua eskatzeko.

BIGARRENA: Soroa Arquitectos S.L.P. aurkezturiko 86/2014 faktura onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**


### **KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 ZK.KO ESPEDIENTEAREN ONESPENA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.160.120.00.01 2014	GIZARTE SEGURANTZA-FUNTZIONARIAK	11.000,00	215,71	11.215,71
1 0000.160.510.00.01 2014	GIZARTE SEGURANTZA.PERTSONAL LABORALA	7.500,00	575,11	8.075,11
1 0000.163.111.00.05 2014	GOI-KARGUEN BIZI ASEGURUAK	2.200,00	146,75	2.346,75
1 0000.163.120.00.05 2014	UDAL LANGILEEN BIZI ASEGURUAK	400,00	146,52	546,52
1 0000.210.441.00.01 2014	AZPIEGITURA GASTUAK: UR SAREA	500,00	242,32	742,32
1 0000.220.120.00.01 2014	BULEGO MATERIALA ETA MANTENIMENDUA	1.500,00	208,25	1.708,25
1 0000.221.120.00.01 2014	ARGI HORNIDURA: ZERBITZU OROKORRAK	5.000,00	2.000,00	7.000,00
1 0000.221.441.00.02 2014	UR HORNIDURA	14.000,00	913,56	14.913,56
1 0000.222.121.00.05 2014	KOMUNIKAZIO INFORMATIKOAK	7.266,00	18,79	7.284,79
1 0000.226.460.00.06 2014	IHARDUERA SOZIO-KULTURAL GASTUAK	2.000,00	70,00	2.070,00
1 0000.226.120.00.99 2014	BESTELAKO HAINBAT GASTU	100,00	106,87	206,87
1 0000.227.120.00.07 2014	AHOLKULARITZA: AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK	5.000,00	2.036,38	7.036,38
1 0000.231.111.00.01 2014	GOI-KARGUEN DIETA,LOKOMOZIO,...	18.000,00	28,00	18.028,00






## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.480.120.00.01 2014	PARTIKULARREI APORTAZIOAK	1.500,00	152,88	1.652,88
1 0000.683.120.00.00 2014	INBERTSIOAK: ONDARE ONDASUNAK	13.000,00	2.645,26	15.645,26
1 0000.933.010.00.01 2014	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	13.947,70	3,99	13.951,69
1 0000.422.120.00.01 2014	BESTE ENTITATEEI EKARPENAK	12.000,00	1.809,33	13.809,33
1 0000.210.510.00.01 2014	AZPIEGITURA ETA ONDASUN GASTUAK	10.000,00	668,42	10.668,42
1 0000.227.120.00.01 2014	GARBIKETA ZERBITZUA	9.000,00	660,52	9.660,52
1 0000.230.120.00.01 2014	PERTSONALAREN DIETA,LOKOMOZIO,...	500,00	279,13	779,13
1 0000.221.433.00.01 2014	ARGI HORNIDURA: ARGITEGI PUBLIKOA	6.000,00	1.000,00	7.000,00
<b>GUZTIRA</b>		140.413,70	13.927,79	154.341,49

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.000.00.04 2014	DIPUTAZIOA: ARGITERI PUBLIKOA	5.000,00
d	1 0000.643.120.00.01 2014	IKERKETA,AZTERKETA,PROIEKT O...	8.927,79
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>13.927,79</b>

**BIGARRENA:** Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA:2014ko abenduaren 3an egindako Idazkariaren komunikazioa onestea, non azaltzen den:

*“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2014rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.*

*Hala ere, kontuan izanda 2014rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.*

*Dena den, Kreditu gehigarri espedienteak honako finantziarioa du :*

*- Kapital Transferentziatik datozen sarrerak .....5.000,00 €*


*-Gastuetako inbertsio errealak murriztuz..... 8.927,79€*

*Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”*

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

CORREOS	8,16
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.037,54
TOLOSAKO UDALA/AITZOL	1.822,00
AITZOL UDAL EUSKALTEGIA	78,40
IZFE	1.816,56
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	186,19
IZFE	18,37
MANPEL	117,88
DIONISIO ORMAZABAL	50,11
LAVANDERIA LIZARRA	122,51
CONSUELO URTEAGA	1.089,00
BABESA SUZAI	119,02
TOLOMENDI	122,40
KEY LAN	11,25
GAS NATURAL FENOSA	30,70
GAS NATURAL FENOSA	24,39
GAS NATURAL FENOSA	225,05



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GAS NATURAL FENOSA	212,78
REPSOL	50,54
REPSOL	4,21
MOVISTAR	18,82
MOVISTAR	59,88
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	79,01

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.436,50** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### HARMAIRUGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

#### 13.1.KONTENEDORE BERDEAK KENTZEKO ONESPENA, HALA BADA

Alkate Lehendakariak batzarkideei jakitera ematen die. Zabor Mankomunitateko gastuak, bi kontzeptuetan banatzen direla, bata gastu finkoetan eta bestea gastu bariabilean. Gastu finkoen kasuan, kontenedore kopuru arabera egiten dela eta urte naturaleko balioa izaten duela. Hau da, kontenedore kopurua gutxitu nahi bada, abenduan jakinarazi behar zaio Tolosaldeko Mankomunitateari, 2015 urtean gastu hori murrizteko. 2015 urtean zehar kontenedore kopurua gutxitzen bada hurrengo urterarte gastua ez delako murrizten.


Horregatik, Alkate Lehendakariak batzarkideei proposatzen die, herrian zehar auto konpostaria martxan jarri denez, gaur egun dauden bost kontenedore berdetik bi kentzea. Bata, Larrunbidera doan kruzean dagoena eta bestea frontoi atzean daudenetatik bat kentzea.

Ondoren Irazu zinegotziak proposatzen du, apustu bat egin behar dela eta bi kontenedore berde bakarrik uztea, jendea kontzientzia hartu dezan.

Alkate lehendakariak erantzuten dio esanaz, autokonpostairen lehen ezarketa udararako egin zela eta bigarrena irailean, beraz, azkarregia dela hiru kontenedoreak kentzeko, eta bere ustez, kentze hori progresiboa izan behar dela.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, gaur egun Larraulgo herrian dauden bost kontenedore berdetatik, bi kentzea. Bata, Larrunbidera doan kruzean dagoena eta bestea frontoiaren ondoan dagoena.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Mankomunitateari ematea.

### **HAMALAU GARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA